



Mikel ALBISU IRIARTE
Maixol IPARRAGIRRE GUENETXEA
Prisonniers politiques basques
CPSF-Réau (QMC/CDF)
Le Plessis Picard
77 550 MOISSY CRAMAYEL
FRANCE

Agustin HERNAN
Bake prozesua indartzeko FORO SOZIALA

64 700 HENDAIA
PAYS BASQUE

Euskal Herria bihotzean
Réaun bahituta
2017ko Azaroa

Agus HERNAN
Foro Sozial Iraunkorraren koordinatzaileari

Agur t'ardi !

Pozez jaso ditugu 2017ko irailaren 22ko gutuna eta berarekin batera igorritako dokumentuak ere.

Bertan maiatzean jasotako dokumentuen gure ekarpenaren zain zaudetela jakinarazten diguzue. Honen inguruan, gaizki-ulertze bat egon da. Zuen gutunean agertzen zeniguten gurekin biltzeko nahia igorritako dokumentuen inguruko gure hausnarketa jasotzeko.

Gure aldetik, dokumentuak aztertuko genituela erantzuten genizuen. Ez genuen gogoan ekarpen idatzi baten zain zeundetenik. Barkamenak beraz alde horretatik.

Honekin batera doazkizue EPPKren ordezkari gisa egin ditugun hausnarketak.

Ikustaldi-baimenen berririk ez dugu gaur gaurkoz, baina badakizue baimenak onartzekotan gure legelariekin jarri behar zaretela harremanetan ikustaldi-eguna finkatzeko.

Besterik gabe, agurtzen gara,

Mikel ALBISU IRIARTE
Maixol IPARRAGIRRE GUENETXEA
EPPKren bozeramaile

* Kolektiboaren eztabaidari dagokionez, ez dizuegu dokumenturik beren beregi helarazi horiek publikoak izanik eskuratu dituzuelakoan.



- «IV. Foro Sozialeko ondorioak» dokumentuari EPPK-ren ekarpena

- «Bide-orri adostu bat eraikitzeko ekarpena gizarte zibiletik» dokumentuari EPPK-ren ekarpena

Foro Sozialari eta bertan parte hartzen duten eragile guztiei aitortzea eta egiten ari diren lanetatik gure eskerron zintzoena adierazi nahi dugu hasteko. Eskertzen dugu 2017ko uztailaren 3an Foro Sozialak egiten zuen EPPK-ren ekarpenari buruzko balorazioa, esanez gure eztabaidaren ondorioa bide-orriaren mesedetan egindako ekarpen garrantzitsua dela kualitatiboki, eta kuantitatiboki, kolektiboaren gehiengoaren bermea lortu izanagatik.

Kolektibo moduan guk egindako ekarpenarekin, 2017ko martxoko IV Foro Sozialaren ondorioekin, bide-orri adostu bat eraikitzeko gizariek egindako ekarpenarekin, eta Ipar Euskal Herriko gizarte zibilaren eta frantziar Justizia Ministeritzako ordezkarien artean hedatutako mintzakidetzarekin, EPPK-k ere uste du ari dela giro egokia sortzen bide-orria adosteko ez ezik presoen auziari konponbidea ezartzen hasteko.

Gure egoerak ezartzen duen distantzia -zuen eta gure artean aurrez aurreko komunikaziorik ezarena eta, beraz, harremanerako zailtasunak elkarri ulertzeko orduan ere gainjartzen dituen oztopoena- gainditzea ez da beti erraza izango, baina horretan ahalegina egiteko asmoa adierazten dugu.

EPPKren hausnarketaren oinarrian Kolektiboko kideok jasaten ari garen egoera bidegabearen salaketa irmoa dago, baina aldi berean eta irimotasun berarekin adierazten dugu egoera hau gainditzeko elkarlanean aritzeko erabakia eta borondatea.

Kolektibo hau osatzen dugun kideok Euskal Herriaren askatasuna lortzeko borrokari lotutako euskal herritarrak gara; borroka horren ondorioz indar polizialek jazarri, atxilotu, kasu askotan torturatu eta espetxeratu gintuzten.

Espetxean gauzkaten estatuek beren legedia urratu izan dute gure espetxe aldia gogortzeko eta luzatzeko. Eta gainera, ez guri bakarrik, baizik eta gure hurkoei ere sakonki eragiten dieten neurriak hartzen dituzte. Nagusi eta ezagunenak bi: deserriratzea eta sakabanaketa.

Deserriratzearen helburua argia da: gure berezko ingurunetik urrunduz harremanak zaildu eta ahultzea. Euskal Herriko berriak berandu eta gaizki iristen zaizkio euskal preso deserriratuari, espetxeratu arte bizi izan den inguruaren egunerokotasunarekiko apurketa eraginez.

Deserriratzeak eragin zuzena du ere gure hurkoengan: gurekin harreman zuzena mantendu ahal izateko arriskua, neke fisiko eta psikologikoa eta xahuketa ekonomikoa. Hildakoak zenbatzen ditugu, zaurituak, xahuketa ekonomikoaren neurria izugarria da, kalte afektibo eta pertsonala ezin neurtuzkoa da ordea. Haurrak, bikoteak, gurasoak, lagun-minak. Kartzelak berez zailtzen dituen harreman horiek deserriratzeak ezin jasanezkoaren mugan jartzen ditu.

Sakabanaketak, bere aldetik, presoak talde txikitik estatuetako kartzela ugaritan barreiatzearen bidez gure izaera politikoa ahultzea eta jasaten ditugun erasoan aurrean gure babesgabetasuna areagotzeko helburua dauka. Gure hurkoei ere eragiten die, ikustaldietarako bidaiak antolatzeke orduan zailtasunak eta bakardadea handitzen baitira.

Deserriratze eta sakabanaketa politiken helburua euskal presoak Euskal Herriatik deserrotzea da, arrotz bihurtzea.

Egoera horren aurrean, presoak bere ingurune afektibo eta politikoarekiko lotura mantentzeko eta presoaren hurkoek dituzten zailtasunei aurre egiten laguntzeko, herritar xumeen eta elkartasunezko antolakundeen laguntza izan dute.

Presoek eta beren hurkoek kartzelaren zigorrari aurre egiteko beharrezkoak dituzten makulu horien aurka ere gogor jotzen du estatuen errepresioak. Elkartasuna agertu diguten talde horietako militante eta senideen artean 46 euskal herritar prozesatuak daude momentu honetan, horietako batzuk jada bi urte eta erdi espetxean eginak dituztenak.

Babes-talde eta ingurune afektiboaren aurkako errepresio horren helburua presoaren presentzia Euskal Herriko kaleetatik desagertu araztea da; presoaren irudiak agertzea, elkartasun keinuak egitea edo kaleratzen direnean herritarrek euren goxotasuna erakustea debekatzearekin osatzen da errepresio hori.

Guzti honen laburpen bezala azpimarratu nahi dugu Espainiako eta Frantziako espetxeetan gauden euskal herritarrok ez dugula euskal gizartean txertatzeko arazorik. Gure herriko dinamiketan pertsona aktibo eta konprometituak ginelako engaiatu ginen Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan, eta gure heiburua da etorkizunean ere gure herrietako gizartearekin dinamika eta harreman konprometituak izatea.

Gure kartzela aldi luzearen ondorioak ez dira debaldekoak, hori bai. Gizartea asko aldatzen da denbora gutxian ere, eta horrek ondorioak ditu hamarkada luzeak kartzelan eman dituen pertsonarentzat. Kartzelaren helburua militante politiko gisa neutralizatu eta pertsona gisa desgaitzea baita.

Azkenik, nabarmendu nahi dugu kartzelara sartzen gaituzten militanteok jasaten dugun lehen eraso sexuaren arabera bereizten gaituzten kartzelatan banantzea dela.

"IV. Foro Sozialeko ondorioak" dokumentuari ekarpena

Oharpen orokor bat egin nahi dugu: dokumentuan gutaz hitz egiterakoan "*motibazio ideologikoen ondoriozko delituengatik preso dauden pertsonen*" ari da Foroa euskarazko definizioan; gaztelerazkoan, baina, "*personas presas por delitos de motivación política*" esaten da, eta frantsesezko adiera gaztelerazkoaren berbera iruditzen zaigu. Guk "euskal preso politikoa" erabiltzen dugu, edo "euskal presoak"; ulertzen dugu Foroan dauden eragile guztien gustukoa ez dela gure adierazpidea. Ontzat emango genuke, dena dela, gazteleraz dagoena; baina euskarazkoan, kasu honetan, haren literaltasunari leialago izan behar lukeela iruditzen zaigu: "*Arrazoi politikoen ondoriozko delituengatik preso dauden pertsonak*" zuzena irudituko litzaiguke.

Lehen atalean eskatzen da "presoak beren familia- eta gizarte-ingurunetik urruntzeari amaiera ematea". Baina eskaera zehaztean "*beren bizilekuetatik gertuago dauden espetxeetara ekarrita*" esaten da. Gure iritziz, "gertuago" horren zehaztugabetasunak gaur eguneko espetxe politika berberari eusteko aukera ematen zaie agintariei. Gure ustez, etxetik edo familiaren bizilekutik "gertuen" izan behar luke (Frantsesezko eta gaztelaniatzko bertsioetan ere "*plus proches*" eta "*mas cercanas*" esaten da). Gertuago egoteak jasaten dugun zigorra arinduko duela ez dugu zalantzan jartzen, baina horrek ez luke konponduko auzia; gerturatzea aldarrikatzeak neurri batean orain arteko espetxe politika horren kudeaketan parte hartzearen itxura eman lezake, asmoa hori ez izanik ere. Gerturatzeari dagokionean, bestalde, uste dugu preso

bakoitzaren nahia errespetatu behar dela, preso bakoitzaren eskaera kontuan hartuz egin behar dela hurbilketa.

Euskal presooi ezartzen zaigun espetxe legedia aztertzen duen **bigarren atalarekiko** zalantzak ditugu, ezarriak zaizkigun lege horiek arintzea eta bertan behera uztea eskatzen baita "justizia trantsizionala garatzeko aurretiazko urrats gisa". Bide-orri hori egin beharko da indarrean dagoen legedia baliatuz, berau malgutasunez aplikatuz, ezabatuz edo aldatuz. Ez da bide-orri juridiko alternatibo bat egingo; dagoen "taula juridikoan" aukerak bilatuz egin behar da bide-orria.

Hirugarren atalean aipatzen den "*gizarteratze-planari*" dagokionez, aipatzen da presoon "*honako eskubide hauek betetzen direla bermatu behar da: gizarteratzea eta bake-prozesuan, normalizazioan eta berradiskidetzean parte hartu eta ekarpenak egitea*". Ez da gure asmoa, eta ez dugu uste zuena ere denik, baina inoren interpretazio interesatuentzat tartea ematen duten kontzeptuetan adierak zehazten ahalegina egin behar dugula iruditzen zaigu. Aldi berean, garrantzitsua deritzogu gure kaleratzearen ondoren gure eskubide eta askatasun politiko guztiak bermatuak izan ditzagun aldarrikatzea ere.

Eragindako mina eta beronen aitortzaren gaiari dagokionez, EPPKk 2013ko abenduan argitaratutako agirian honela zioen: "Konponbide politikoa integrala izatea ezinbestekoa den bezala, gatazkaren ondorioen eremuan ikuspegi osoa kontuan hartzea ezinbestekoa da, ondorioen atal guztiak kontuan hartu eta garatzea. Gatazkaren ondorioz eragindako alde anitzeko sufrimendua eta mina zinez aitortzen dugu". Eta aurrerago honela genioen agiri berean: "Gutako bakoitzaren erantzukizuna aztertzeko prestasuna ere badugu, baldintza eta bermeak dituen prozesu adostu batean". Atal honetan pausoak emateko orduan adierazitako asmoa berresten dugu beraz. Aitortza hori, baina, ez litzateke inoren askatasunaren bide-sari gisa agertu behar.

«Bide-orri adostu bat eraikitzeke ekarpena gizarte zibiletik» dokumentuari ekarpena

Gaur egun Espainia eta Frantziako legediaren pean kartzelan gauden euskal preso politikook gure kaleratzea bide juridikoetatik burutzea onetsi dugu. Horrek ez du esan nahi geuretzat onesten ditugunik lege horiek. Are, legedi horien helburua presoon kaleratzea oztopatzea denean.

Gatazka politiko baten ondorioz gaudenez kartzelan, nabarmena da gure kaleratzeak adostasun politikoa eskatzen duela. Idazkian esaten da "*Espainiako Estatuak gaur egun gaindituak diren garaietako zigor- eta*

espetxe-politikari eusten dio; printzipio eta helburu politikoek gidatzen dute haren espetxe politikaren kudeaketa, eta ez printzipio eta helburu juridikoek”.

Horregatik, kontua ez da printzipio eta helburu juridikoetan oinarritutako espetxe-politika bat aldarrikatu eta indarrean jartzea, baizik eta egokitzapen juridikoa gatazka gainditzea helburu politiko gisa hartuta egin behar dela.

Horrek ez du esan nahi, noski, idazkian esaten den bezala ez dela aldarrikatu behar *“indarrean dagoen espetxe-legediaren interpretazio malgu bat”* eta aldarrikapen horren inguruan ahaiik eta adostasun zabalenak lortu.

Ohartarazi nahi dugu ere gutako asko eta asko torturatuta izan ostean gaudela espetxean eta torturapean erazitako aitorpenak erabili izan direla eta erabiltzen direla oraindik ere gure kartzela-zigorak handitzeko. Oraindik ere sumario berriak zabaltzen diharduela Espainiako aparatu judizialak eta gatazka gainditu baino berau areagotzeko ekimenak dituela helburu.

EPPK aurrera begira.

Zenbait hilabetez luzatu den eztabaida prozesua amaitu du gure kolektiboak. Eta horren emaitza, eztabaidako parte hartze handiari eta ondorioek jaso duten atxikimenduari dagokionean, urrats handia izan da, eta etorkizunera begira bere kokapena eta erabakitasuna argitu ditu. Jada hasiak gara eztabaidaren ondorioetan hartutako erabakiak inplementatzen, preso bakoitzari emanaz bere txosten pertsonalaren inguruko azterketa egiten hasteko ardura, abokatuen laguntzarekin espetxe zigorraren egoera ikertu eta eskaera pertsonalak egin ahal izateko kaleratze prozesua bizkortze aldera.

- Frantziar estatuan presoak hasiak dira banakako baldintzapeko askatasun eskaerak egiten.
- Espainiar espetxeetako presoak hasiak dira espetxeetan lan-destino indibidualak eta legez preso bakoitzari dagozkion erredentzio arruntak eta bereziak eskatzen.
- Espainiar espetxeetan presoak laster batean hasiko dira (edo hasiak dira) presoak gradu aldaketa eskatzen indibidualki, 1. gradutik 2. gradura, eta 2. gradutik 3.era.
- Espainiar espetxeetan presoak laster hasiko dira 2. graduan dauden presoak irteera baimenak eskatzen.

- Larriki gaixorik dauden presoen banakako eskaerak egin dira; hauen egoerak, gaixoen zerrenda publikoan agertzen ez diren preso batzuenak barne, kaleratze premia handia du.

- Azaroaren 16tik aurrera, EPPK-k azaroaren bateko agirian iragarri zuen moduan, banakako eskaerak egingo dituzte presoek Euskal Herrira (Zabaila) edo Mont de Marsan espetxera hurbiltzeko.

Amaituz, Foro Soziala osatzen duten eragile sozialekin eta sindikatuekin bake prozesu baterako bide-orri partekatu bat eraikitzeari begirako EPPKren ekarpenari dagokionean, esan behar dugu orokorrean positibotzat jotzen ditugula egiten diren proposamen ezberdinak eta horiekin ados gaudela, egin ditugun ohar eta iruzkinekin, jakina. Gure prestutasun osoa agertzen dugu Foro Sozialean biltzen diren gizarte eragileekin batera gatazka gainditze bidean kartzelak husteko ekimenetan parte hartzen jarraitzeko.

Edozelan ere, eta bi dokumentu hauetatik eta horiei hemen egiten dizkiegun ekarpenetatik aparte, bidezko deritzogu aurrerago Foro Sozialeko partaideei helaraztea etorkizuneko erronkei begirako EPPK-ren kokapen orokorrago bat, nahiz eta aurkeztuko ditugun gai eta iruzkinetako asko modu batean edo bestean jada agertzen diren bai IV Foro Sozialaren ondorioetan eta bai Bide-orri adostu baterako Ekarpenean.

Oraingoz besterik gabe, adeitsuki

EPPKren zuzendaritza
Euskal Herria bihotzean, 2017ko azaroan



- Aportación de EPPK al documento «Conclusiones del IV Foro Social»
- Aportación de EPPK al documento «Aportación desde la sociedad civil a la construcción de una hoja de ruta consensuada»

En primer lugar, queremos expresar al Foro Social y a todos los agentes que participan en él nuestro reconocimiento y más sincero agradecimiento por la labor que están realizando. Agradecemos la valoración que el Foro Social hacía el 3 de julio de 2017 sobre la aportación de EPPK diciendo que las conclusiones de nuestro debate son una aportación cualitativa importante a la hoja de ruta, y también cuantitativa por haber logrado el apoyo de la mayoría del colectivo.

EPPK comparte la opinión de que con la aportación que hemos hecho como Colectivo, las conclusiones del IV Foro Social de marzo de 2017, la aportación desde la sociedad civil a la construcción de una hoja de ruta consensuada y la interlocución desplegada entre la sociedad civil de Ipar Euskal Herria y representantes del Ministerio de Justicia galo se está creando un clima apropiado para acordar una hoja de ruta y empezar a solucionar la cuestión de los presos.

No siempre será fácil superar la distancia inherente a nuestra situación –no hay comunicación directa entre vosotros y nosotros y la dificultad para relacionarnos supone un obstáculo añadido a la hora de entendernos–, pero manifestamos nuestra intención de esforzarnos en ello.

La reflexión hecha por EPPK tiene como base la denuncia firme de la injusta situación que padecemos los miembros del Colectivo, pero, al mismo tiempo y con la misma firmeza, expresamos nuestra decisión y voluntad de trabajar conjuntamente para superar esa situación.

Quienes integramos este Colectivo somos ciudadanas y ciudadanos vascos comprometidos con la lucha por la libertad de Euskal Herria. Como consecuencia de esa lucha, las fuerzas policiales nos persiguieron, nos detuvieron, en muchos casos nos torturaron y finalmente nos encarcelaron.

Los estados que nos mantienen en prisión han vulnerado su propia legalidad con la finalidad de endurecer y alargar nuestro cautiverio. Y, además, toman medidas que nos afectan profundamente no solamente a nosotros, sino también a nuestros allegados. Las principales y más conocidas son dos: el destierro y la dispersión.

El objetivo del destierro es claro: alejarnos de nuestro entorno natural para así dificultar y debilitar los vínculos con él. Al preso vasco desterrado las noticias de Euskal Herria le llegan tarde y mal, lo cual le provoca una ruptura con la cotidianeidad del entorno en el que ha vivido hasta ser encarcelado.

El destierro tiene consecuencias directas también en nuestros allegados: riesgos para poder mantener una relación directa con nosotros, cansancio físico y psicológico, derroche económico. Contabilizamos muertos y heridos, el coste económico alcanza cantidades impresionantes, pero el daño afectivo y personal no se puede cuantificar. Niñas y niños, parejas, padres y madres, amigas y amigos. La cárcel, ya de por sí, dificulta esas relaciones, pero el destierro las lleva al límite de lo insoportable.

Por su parte, el objetivo de la dispersión es debilitar nuestra naturaleza política y aumentar nuestra indefensión ante los ataques que padecemos, dispersándonos en pequeños grupos por numerosas cárceles de ambos estados. La dispersión también afecta a nuestros allegados, pues hace que aumenten la soledad y las dificultades a la hora de organizar los viajes para venir a vernos.

El objetivo de las políticas de destierro y dispersión es hacer que el preso vasco se desarraigue de Euskal Herria y convertirle en un extraño.

Ante esa situación, la ayuda del pueblo y de los organismos de solidaridad ha sido fundamental tanto para que los presos mantengan los vínculos con su entorno afectivo y político como para hacer frente a las dificultades que deben superar sus allegados.

La represión del Estado también golpea duramente a esos organismos de apoyo tan necesarios para los presos y sus allegados a la hora de hacer frente al castigo que supone la cárcel. De entre los familiares y militantes de esos organismos que nos han mostrado su solidaridad, 46 ciudadanas y ciudadanos vascos están procesados en este momento, y algunos de ellos ya llevan dos años y medio en la cárcel.

El objetivo de la represión contra los organismos de apoyo y el entorno afectivo es hacer que la presencia del preso desaparezca de las calles de Euskal Herria. Esa represión se complementa con prohibir que se muestren imágenes de los presos, se hagan gestos solidarios o que el pueblo les muestre su cariño cuando salen de la cárcel.

Como resumen de todo esto, queremos remarcar que las y los ciudadanos vascos encarcelados en España y Francia no tenemos ningún problema para integrarnos en la sociedad vasca. Nos comprometimos en la lucha por la libertad de Euskal Herria porque éramos personas activas y comprometidas en las dinámicas de nuestro pueblo, y nuestro objetivo es tener también en el futuro dinámicas y relaciones comprometidas con la sociedad de nuestros pueblos.

Eso sí, las consecuencias de nuestra larga estancia en prisión no son gratuitas. La sociedad cambia mucho en poco tiempo, y eso tiene consecuencias para la persona que ha pasado largas décadas en prisión, ya que el objetivo de la cárcel es neutralizarnos como militantes políticos e inhabilitarnos como personas.

Por último, queremos subrayar que el primer ataque que sufrimos las y los militantes que somos encarcelados es separarnos en cárceles que nos diferencian en función del sexo.

Aportación al documento «Conclusiones del IV Foro Social»

Queremos hacer una observación general: al referirse a nosotros en el documento, el Foro nos define como *“motibazio ideologikoen ondoriozko delituengatik preso dauden pertsonak”* en la versión en euskara; en la versión en castellano dice *“personas presas por delitos de motivación política”*; y la expresión que utiliza en la versión en francés nos parece igual que la de castellano. Nosotros decimos *“presos políticos vascos”* o *“presos vascos”*. Entendemos que esa expresión no es del gusto de todos los agentes que participan en el Foro. Por nuestra parte, aceptaríamos la expresión utilizada en el documento en castellano, pero pensamos que, en este caso, la expresión en euskara debería ser más fiel a su literalidad. Nos parecería correcto decir *“Arrazoi politikoaren ondoriozko delituengatik preso dauden pertsonak”*.

En el **primer apartado** se pide *“el fin del alejamiento de las personas presas de su entorno familiar y social”*, pero al concretar esa demanda se dice lo siguiente: *“mediante su traslado a cárceles más cercanas a su domicilio”* (*“gertuago”* en euskara y *“plus proches”* en francés). En nuestra opinión, la vaguedad de ese *“a cárceles más cercanas”* da a las autoridades la posibilidad de mantener la actual política penitenciaria. Pensamos que debería decir *“a las cárceles más cercanas”* a su domicilio o al lugar de residencia de su familia (en euskara, *“gertuen”*). No ponemos en duda que estar en cárceles más cercanas aliviará el castigo que padecemos, pero eso no solucionaría el problema. En cierta medida, y aunque la intención no sea esa, reivindicar el acercamiento podría dar impresión de que se participa en la gestión de la política penitenciaria que se ha venido aplicando hasta ahora. Por otra parte, en lo relativo al acercamiento, pensamos que hay que respetar la voluntad de cada preso, es decir, que el acercamiento tiene que darse teniendo en cuenta la solicitud de cada preso.

En el **segundo apartado** se analiza la legislación penitenciaria que se nos aplica a los presos vascos, y tenemos dudas sobre lo que se dice al respecto, ya que se pide suavizar y derogar las leyes que se nos aplican, *“como paso previo al desarrollo de una justicia de carácter transicional”*. Esa hoja de ruta tendrá que hacerse utilizando la legalidad vigente, aplicándola con flexibilidad, derogándola o modificándola. No se hará una hoja de ruta jurídica alternativa. La hoja de ruta tiene que hacerse buscando posibilidades en la *“tabla jurídica”* existente.

Respecto al *“plan de reintegración”* que se menciona en el **tercer apartado**, el documento dice lo siguiente: *“Asegurar que estas personas presas puedan ejercer sus derechos a la reintegración, participación y contribución al proceso de paz, normalización y reconciliación”*. No es nuestra intención, y pensamos que tampoco la vuestra, pero opinamos que tenemos que hacer un esfuerzo por concretar el sentido de aquellos conceptos que dan pie a interpretaciones interesadas. Así mismo, nos parece importante reivindicar que tras nuestra excarcelación tengamos garantizados todos nuestros derechos y todas nuestras libertades políticas.

Con respecto al reconocimiento del daño causado, EPPK decía lo siguiente en su declaración de diciembre de 2013: *“Al igual que la solución política tiene que ser necesariamente integral, las consecuencias del conflicto también tienen que encararse desde una perspectiva global, teniendo en cuenta y desarrollando todos los aspectos de las mismas. Reconocemos con toda sinceridad el sufrimiento y daño multilateral causados como consecuencia del conflicto”*. En esa misma declaración, añadíamos lo siguiente: *“Así mismo, mostramos nuestra voluntad para analizar la responsabilidad de cada uno de nosotros, dentro de un proceso acordado que reúna las condiciones y garantías suficientes”*. Nos ratificamos en la voluntad ya expresada de dar pasos en este apartado. Sin embargo, ese reconocimiento no debería aparecer como peaje por la libertad de nadie.

Aportación al documento «Aportación desde la sociedad civil a la construcción de una hoja de ruta consensuada»

Los presos políticos vascos actualmente encarcelados bajo la legislación española y francesa hemos aprobado que nuestra excarcelación se produzca por vías jurídicas, lo cual no significa que aceptemos esas leyes, máxime teniendo en cuenta que su objetivo es obstaculizar nuestra excarcelación.

Dado que estamos en prisión como consecuencia de un conflicto político, resulta evidente que nuestra excarcelación exige un acuerdo político. En el documento se dice lo siguiente: *“Constatamos que el Estado Español se mantiene a día de hoy en una posición de gestión de la política penal y penitenciaria más propia de tiempos ya superados y caracterizada por principios y objetivos políticos y no jurídicos”*.

Por lo tanto, la cuestión no es reivindicar la puesta en vigor de una política penitenciaria basada en principios y objetivos jurídicos. La adecuación jurídica se tiene que hacer tomando la superación del conflicto como objetivo político.

Evidentemente, eso no quiere decir que no haya que reivindicar una *“interpretación flexible de la legalidad penitenciaria vigente”* –tal y como se dice en el documento– y alcanzar consensos lo más amplios posibles en torno a esa reivindicación.

También queremos señalar que muchos de nosotros estamos en prisión tras haber sido torturados, que las confesiones arrancadas bajo tortura se han utilizando y se siguen utilizando para incrementar nuestras penas de prisión, que el aparato judicial español continúa abriendo nuevos sumarios y que su objetivo no es superar el conflicto, sino agudizarlo.

EPPK de cara al futuro.

Nuestro Colectivo ha dado por finalizado su proceso de debate, que ha durado varios meses. El resultado del debate ha sido un gran paso, tanto por la elevada participación como por el nivel de adhesión a sus conclusiones. Así mismo, el debate ha clarificado el posicionamiento y la determinación del Colectivo de cara al futuro. Ya hemos empezado a implementar las decisiones tomadas como resultado del debate, dejando en manos de cada preso la responsabilidad de empezar a estudiar su dossier personal, para, con la ayuda de los abogados, analizar la situación de su pena de prisión y poder hacer solicitudes personales de cara a acelerar el proceso de excarcelación.

- Los presos encarcelados en el Estado francés ya han empezado a cursar individualmente las solicitudes de libertad condicional.
- Los presos encarcelados en el Estado español ya han empezado a solicitar destinos de trabajo individuales, así como las redenciones ordinarias y extraordinarias que le corresponden a cada preso.
- Los presos encarcelados en el Estado español pronto empezarán (o ya han empezado) ha solicitar individualmente la progresión de grado (de primer grado a segundo grado, y de segundo grado a tercer grado).
- En el Estado español, los presos que están en segundo grado pronto empezarán a solicitar permisos de salida.
- Se han cursado solicitudes individuales para la puesta en libertad de los presos gravemente enfermos. Su situación, incluyendo la de algunos presos gravemente enfermos que no aparecen en la lista que se ha hecho pública, exige que sean urgentemente excarcelados.
- Tal y como anunció EPPK en su declaración del 1 de noviembre, a partir del 16 de noviembre los presos solicitarán individualmente su acercamiento a Euskal Herria (Zaballa o Mont-de-Marsan).

Para finalizar, en lo relativo a la aportación de EPPK de cara a construir junto con los agentes sociales y sindicatos que integran el Foro Social una hoja de ruta consensuada para un proceso de paz, tenemos que decir que, en general, consideramos positivas las diferentes propuestas que se hacen y estamos de acuerdo con ellas, con los comentarios y observaciones que hacemos en este documento. Mostramos nuestra plena disposición a seguir participando junto con los agentes sociales reunidos en el Foro Social en las diferentes iniciativas encaminadas a vaciar las cárceles en el marco de la hoja de ruta para la resolución del conflicto.

En cualquier caso, al margen de los dos documentos y de las aportaciones que aquí les hacemos, más adelante haremos llegar a los miembros del Foro Social un posicionamiento más global de EPPK de cara los retos del futuro, aunque muchos de los temas y comentarios que presentaremos ya aparecen, de una u otra manera, en las conclusiones del IV Foro Social y en la aportación para una hoja de ruta consensuada.

Sin nada más por el momento, respetuosamente

Dirección de EPPK
Euskal Herria bihotzean, noviembre de 2017